

# BASQUE\_GREEN\_TALENT



Europar Batasunak  
kofinanzatuta  
Cofinanciado por  
la Unión Europea



**Basque Circular Hubek**, Ihobe-Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak kudeatzen duen Euskadiko ekonomia zirkularreko zerbitzu aurreratuen zentroak, **ekonomia zirkularren arloko gazteentzako praktika programaren urteko hirugarren deialdia ireki du.**

Basque Green Talent programaren lehen edizioa otsailean egin zen, eta **trantsizio berdeari lotutako lanpostuak eskuratzen laguntzen die langabezia dauden 18 eta 29 urte arteko pertsoneri.**

## Zer eskaintzen du Basque Green Talentek?

- **Gaitasun berdeei buruzko prestakuntza teknikoa**, Ihobe-Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak zuzendua.
- **Enplegurako gaitasunei buruzko prestakuntza**, Novia Salcedo Fundazioak emana.
- **Laguntza pertsonalizatua eta tutoretza**, programa osoan zehar.
- **6 hilabeteko praktika ordainduak** Basque Circular Huben

**Praktiketan hasi aurretik, hautatutako pertsonak ekonomia zirkularri buruzko doako formazioa jasoko dute. Prestakuntzak eduki hauek ditu:**

1. **Deskarbonizaziorako ekonomia zirkularra.**

2. **Ekonomia zirkularrerako eta deskarbonizaziorako estrategiak.**
3. **Enpresaren ingurumen kudeaketarako tresnak.**
4. **Bizi zikloaren analisia.**
5. **Produktuen ingurumen adierazpenak eta karbono aztarna.**
6. **Bi ibilbide posible, garatu beharreko proiektuen arabera:**
7. **I. ibilbidea: BZA tresnak: SimaPro softwarea.**
8. **II. ibilbidea: erakundearen karbono aztarna enpresari aplikatua**

## **Praktiken edukia**

### **1. Basque Ecodesign Centerren esparruko proiektuak – Bilbo eta Arrasate Hub**

**Praktiken helburua:** Basque Ecodesign Centerreko enpresa bazkideei laguntza ematea, ekonomia zirkularrari lotutako metodologiak eta proiektuak garatzeko eta inplementatzeko.

**Eginkizunak:** Garatu beharreko proiektuen tipologiaren arabera, ingurumen metrikak, deskarbonizazio ibilbideak eta balio katearen kudeaketa, emisioen berri ematea, karbono aztarna edo erosketaren berdea planteatzen eta kalkulatzeko lagunduko da.

### **2. Ingurumenaren zaintza estrategikoa eta karakterizazio faktoreen garapena – Gasteiz Hub**

**Praktiken helburua:** Ingurumenaren arloko berrikuntzak sistematikoki identifikatzea, euskal enpresetarako aukerak sor ditzaketenak.

**Eginkizunak:** Eginkizunen artean egongo dira ingurumen alerten analisia eta ebaluazioa egitea, Ihebeko arduradunentzako informazio buletinak sortzen laguntzea eta zaintza tematikoko dokumentuak lantzea. Gainera, SimaPro softwarearen bidez identifikatutako karakterizazio faktoreen garapena landuko da, Climate & Circularity Calculator tresnan integratzeko.

### **3. Ihoberen lan arloko proiektuak – Ihebeko bulegoak**

**Praktiken helburua:** Praktikak Ihoberen zein arlotan egiten diren, helburuak izan daitezke eragileak mobilizatzen laguntzea BEG emisioen murrizketa sustatzeko, komunikazio lanetan laguntzea, ekoberrikuntza arloan laguntzea, ingurumen plangintzarako adierazleak kalkulatzeko laguntzea, Europako proiektuen arloan edo emisioen erregistroan laguntzea.

**Eginkizunak:** Eginkizunak praktikak egiteko Ihoberen arloaren arabera definituko dira.

#### **4. Deskarbonizazio proiektuak ETEetan – Bitarteko zenbait eragileren egoitzak**

**Praktiken helburua:** Industriako eta industria sektoreari lotutako zerbitzuetako ETEak deskarbonizatzeko estrategia/bide orria definitzeko oinarriak ezartzea.

**Eginkizunak:** Karbono aztarna kalkulatzeko 1. eta 2. irismenetan, eta/edo erakundearen ingurumen aztarna, Climate & Circularity Calculator tresnaren eta Ministerioaren Karbono Aztarnaren Erregistroaren kalkulagailuaren bidez; 3. irismenerako materialtasun analisia, eta gutxienez 3. irismeneko kategoriatan inpaktua kalkulatzeko, emaitzen analisia eta zientzian oinarritutako deskarbonizazio helburu eta lan ildoak planteatzea.

#### **Egoitza bakoitzeko plaza kopurua:**

- 7 plaza Bilboko Basque Circular Huben egoitzan, Basque Ecodesign Centerren esparruko proiektuetan parte hartuz.
- 4 plaza Arrasateko Basque Circular Huben egoitzan, Basque Ecodesign Centerren esparruko proiektuetan parte hartuz.
- 5 plaza Gasteizko Basque Circular Huben egoitzan, Ihoberen Ingurumena Zaintzeko Sistemaren parte hartuz.
- 7 plaza Ihoberen, hainbat lan arlotako proiektuetan parte hartuz.
- 6 plaza gehigarri [Murriztearren 2025](#) programaren barruan, ETEentzako deskarbonizazio proiektuetan parte hartuz, bitarteko eragile bidez bideratuta.

Praktikak **astelehenetik ostiralera** egingo dira, aurrez aurre, **8:00etatik 15:00etara**, aipatu zentroetan, astean egun batean telelana egiteko aukerarekin. **Praktikak urriaren 21ean hasiko dira.**

Programa Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 18 eta 29 urte arteko gazteei zuzenduta dago. Gazteok ez dute eduki behar esperientziarik erlacionatutako enpleguetan. Interesdunek Lanbiden izena emanda eduki behar dute, enplegu eskatzaile gisa edo enplegua hobetzeko eskatzaile gisa. Programa, batez ere, biologiako, geologiako, kimikako, fisikako, ingeniartzako, EAZko, zuzenbideko, ingurumen zientzietako edo antzeko arloetako goi mailako heziketa zikloa edo unibertsitate titulazioa (azken ikasmilako ikasleak barne) daukaten gazteentzat da.

**Datu garrantzitsuak:**

- **Eskatzeko epea:** irailaren 29tik urriaren 17ra.
- **Praktikaren iraupena:** 60 ordu: prestakuntza presentziala, online eta lan pertsonala. Prestakuntzaren ordutegia: 9:00 - 13:30 h.
- **Praktiken hasiera:** urriaren 21a
- **Izena emateko esteka:** [Basque Green Talent \(noviasalcedo.es\)](https://noviasalcedo.es)
- **Online Informazio Saioa:** Datorren irailaren 5ean, Zoomen bidez, Novia Salcedo Fundazioak antolatuta. [“Ezagutu Basque Green Talent: informazio saioa adimen jasangarrientzat”](#)
- **Hurrengo edizioak:** 2026ko otsaila, 2026ko maiatza, 2026ko iraila